

## **NEGOZIO IDEIAK**

1.- Umeentzako ibilbide adimentsua (0-2) (edoskitze zona, zuhaiztiak, kolore desberdinak, musika desberdina, fardela aldatzeko lekua, lurzoru desberdinak, 24 orduko haurtzaindegia).

2.- 24 ordu zabalik dagoen haurtzaindegi euskaltegia (langile euskaldunak, umeen euskera maila hobetzeko...).

3.- Haurrentzako paseo zinta.

4.- Haurtxoentzako kotxe garbitzailea.

<b>IRIZPIDEAK</b>					
<b>IDEIA</b>	<b>BERRITZAILEA</b>	<b>APLIKATZEKO ERRAZA</b>	<b>DIRUA IRABAZIKO DUGU?</b>	<b>ILUSIOA EGITEN DIZU</b>	<b>PUNTUAZIO TOTALA</b>
	1-TIK / 5-RA	1-TIK / 5-RA	1-TIK / 5-RA	1-TIK / 5-RA	1-TIK / 5-RA
<b>1</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>4</b>
<b>2</b>	<b>2</b>	<b>4</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>3</b>
<b>3</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>2,75</b>
<b>4</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>2,5</b>

3 ideia hobereenen artean puntu gehien dituenak aukeratu:

IDEIA:					
GALDERA SORTA	1	2	3	4	5
1- Gure produktu/zerbitzua prezio erreal baten truke bezeroak izango lituzke?				X	
2-Onargarria den gastu bati aurre egin diezaiokegu?		X			
3- Ezaugarri desberdintzailerik ba al du?					X
4- Merkatuan bere beharra al dago?		X			
5- Baliabide (propioak eta kanpokoak) nahikoa al ditugu ?		X			
6- Esperientzia al dugu produktuan edo sektorean?	X				
7- Gure bezero potentzialak definituta al ditugu?				X	
8-Ilusioa al dugu proiektuarekin ekiteko?					X
9-Lan gogor egiteko prest al gaude?					X
PUNTUAZIO TOTALA	<b>30</b>				

IDEIA:					
GALDERA SORTA	1	2	3	4	5
1- Gure produktu/zerbitzua prezio erreal baten truke bezeroak izango lituzke?			X		
2-Onargarria den gastu bati aurre egin diezaiokegu?			X		
3- Ezaugarri desberdintzailerik ba al du?				X	
4- Merkatuan bere beharra al dago?		X			
5- Baliabide (propioak eta kanpokoak) nahikoa al ditugu ?		X			
6- Esperientzia al dugu produktuan edo sektorean?		X			
7- Gure bezero potentzialak definituta al ditugu?				X	
8-Ilusioa al dugu proiektuarekin ekiteko?			X		
9-Lan gogor egiteko prest al gaude?		X			
PUNTUAZIO TOTALA	<b>25</b>				

IDEIA:					
GALDERA SORTA	1	2	3	4	5
1- Gure produktu/zerbitzua prezio erreal baten truke bezeroak izango lituzke?			X		
2-Onargarria den gastu bati aurre egin diezaiokegu?			X		
3- Ezaugarri desberdintzailerik ba al du?				X	
4- Merkatuan bere beharra al dago?		X			
5- Baliabide (propioak eta kanpokoak) nahikoa al ditugu ?			X		
6- Esperientzia al dugu produktuan edo sektorean?	X				
7- Gure bezero potentzialak definituta al ditugu?	X				
8-Ilusioa al dugu proiektuarekin ekiteko?				X	
9-Lan gogor egiteko prest al gaude?			X		
PUNTUAZIO TOTALA	<b>24</b>				

## **BALIO PROPOSAMENA**

Taldekideten artean aukeratutako ideia lehenengoa izan da, hau da, umeentzako ibilbide adimentsua. Asmatutako produktua/zerbitzua haurren (0 eta 3 urte bitartekoak) eta gurasoen egunerokoa errazteko asmoz sortuta dago. Gure ideia, Euskal Autonomia erkidegoko udaletxeekin elkarbanatea eta lan sare bat sortzea gustatuko litzaziguke, eta herritarrei zerbitzu publiko hau eskaini. Ere oso handia bat beharko genuke eta hau hainbat ere txikiagotan banatuko genuke; kanpoko zonaldea eta barruko zonaldea. Umeak hainbat estimulu jasotzen dezaten eta gurasoek erraztasunak. Ondoren gure zerbitzuaren ezaugarriak:

- Hainbat musika eta natura soinu egokituta egongo dira.
- Lurzoru desberdinak, erliebe ezberdinekin.
- Komunak eta fardela aldatzeko pit-stop zonaldea.
- Vending makinak: umeentzako krema, gurasoentzako edariak, txupeteak, bibeoriak, esnea ateratzeko makina, esne-hautsa).
- Publizitate panelak hormetan.
- Edoskitze zona lasaia estimulu gabea.
- Jolas sensorialak (usaimena, ukimena, entzumena...).
- Umeentzako jan lekua (baby led weaning oinarrituta, mikroondas eta garbigailuarekin.).
- Amentzako pelbis-zorua indartzeko gimnasia ariketak egiteko kurtsoak.
- 24 orduko zaintzako haurtzaindegia.

Gure ustez, sortutako zerbitzu/produktua berritzailea da, izan ere, parke normalak existitzen diren arren, ez daude familien beharrak guztiz asetzen dituzten parkeak. Gaur egun, jaiotze tasa oso murrizta izaten ari da eta honi bultzada bat eman asmoz eta familien bizitza erraztea helburu izanik, gizartean produktu zerbitzu honen beharra dagoela sumatu dugu.

Gure produktua ez da zirkuitu soil bat bakarrik. Honekin batera gure ideari balio erantsia gaineratuko diogun ideiak gaineratu dizkiogu, lehenago aipatu ditugunak. Bertan gure produktuak eskaintzen dituen prestazioak ikus ditzakegu.

Ibilbideak aintzat hartuko du gure bezeroen kultura, hezkuntza, geografia eta baliabide ekonomikoak, hau da, gure helburua gure produktu/zerbitzua biztanleriari egokitzea izango litzateke pertsonalizazioaren parekotasuna bilatuz.

Orokorrean, gure helburu nagusia, gizartearen zati handi baten, kasu honetan familien bizitza erraztea da. Kasu gehienetan, egoera zaila eta ezezaguna baita, batez ere lehenengo umea izaten dutenentzat eta gurasoen artean lotura sareak

eraikitzea oso interesgarria izaten da familientzat. Hauek eraikitzea erraztuko luke gure zerbitzuak.

Gure zerbitzuak diseinu erakargarria duela uste dugu, izan ere, gizarte talde horrek egunero dituzten beharretara egokituko baita. Gainera, hainbat diseinu maila egongo dira, (estandarra, aurreratua, VIP...)

Hortaz aparte, gure zerbitzuak umeen segurtasuna bermantzea du helburua, horretarako, segurtasun lege guztiak betetzen ditugula egiztatzen dugu beti.

**MISIOA:** haurtxoentzako esperientzia atsegina eskaini ahal izatea, eta behar handiena duten familientzako hazkuntza-prozesua eskaintzea eta erraztea.

**BISIOA:** proiektu hau munduan zehar zabaltzeko ahal izatea, ahalik eta jende gehienak bizi dezan esperientzia hau.

**IKUSPEGIA:** haurrak txikitatik hezteko, beren gizarte-trebetasunak erraz gara ditzaten.

**IZENA:** FANTASY TRAVEL

**LEMA:** "Arakatu, ikasi eta hazi gure parke magikoan"

**LOGOTIPOA:**

